



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 11

139. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

ARTIKULUEI ETA PARTIDEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak, eta partzialki argitara daitezkeen haren partidei aurkeztutako zuzenketak. Foru Lege proiektua 2020ko azaroaren 12ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluko (kreditu-gehikuntzak) 7. apartatuari letra berri bat, f) bis, gehitzeko zuzenketa.

«f) bis. 710000-71210-7700-412100 partida, "Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoa».

Zioak: Fenomeno atmosferiko kaltegarriak ezin aurreikusizkoak izateak behartzen du partida hauek zabalgarri gisa ezartzera Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan.

Partida horien helburua da modua ematea neurriak hartzeko, uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiei aurre egite aldera, horiek askotariko kalteak eragin izan dituzte-eta jabetza partikular nahiz publikoetan, eta horren ondorioz, beharrezkoa izaten da Administrazioak esku hartzea eta zenbait laguntza ezartzea, bat-batean sortutako egoera horien eraginak arintze aldera.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluko (kreditu-gehikuntzak) 7. apartatuari letra berri bat, f) bis, gehitzeko zuzenketa.

«f) bis. 710006-71510-7609-414400 partida, "Titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak konpontzeko laguntzak, aparteko uholdeak direla-eta" izenekoa».

Zioak: Fenomeno atmosferiko kaltegarriak ezin aurreikusizkoak izateak behartzen du partida hauek zabalgarri gisa ezartzera Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan.

Partida horien helburua da modua ematea neurriak hartzeko, uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiei aurre egite aldera, horiek askotariko kalteak eragin izan dituzte-eta jabetza partikular nahiz publikoetan, eta horren ondorioz, beharrezkoa izaten da Administrazioak esku hartzea eta zenbait laguntza ezartzea, bat-batean sortutako egoera horien eraginak arintze aldera.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluko (kreditu-gehikuntzak) 7. apartatuari letra berri bat, f) bis, gehitzeko zuzenketa.

«f) bis. 710006-71510-7819-414100 partida, "Ureztatzaileen Elkarteen nekazaritza azpiegiturak konpontzea, aparteko uholdeengatik" izenekoa».

Zioak: Fenomeno atmosferiko kaltegarriak ezin aurreikusizkoak izateak behartzen du partida hauek zabalgarri gisa ezartzera Landa Garapene-ko eta Ingurumeneko Departamentuan.

Partida horien helburua da modua ematea neurriak hartzeko, uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiei aurre egite aldera, horiek askotari-ko kalteak eragin izan dituzte-eta jabetza partikular nahiz publikoetan, eta horren ondorioz, beharrezkoa izaten da Administrazioak esku hartzea eta zenbait laguntza ezartzea, bat-batean sortuta-ko egoera horien eraginak arintze aldera.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

5. artikuluko (kreditu-gehikuntzak) 8. apartatua-ri letra berri bat, b) bis, gehitzeko zuzenketa.

"b) bis. "Nafarroako Enplegu Plan berriaren kudeaketa" izeneko partida".

Zioak: Enplegu Plan berria egin beharra dago, eta prozesua oraindik ez denez hasi, partida bat sartzen dugu Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorretan, 10 eurokoa, Planaren taxuera eta garapenaren arabera beharrezkoan egokituko.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5. artikuluko (kreditu-gehikuntzak) 9. apartatua-ri letra berri bat, t) bis, gehitzeko zuzenketa.

"t) bis. Enplegu Plana".

Zioak: Beharrezkoa da partida bat txertatzea, islatuko duena Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, urtearen lehen seihilabetekoan Enplegu Plan bat onestekoa Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren baitan, erkidego honen garapenean aurrerapausoak emateko politika ekonomiko, sozial eta enpleguak jasoko dituen.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9. artikuluko 11. apartatua kentzeko zuzenketa (Nafarroako Gobernu kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak).

Zioak: Nafarroako Gobernu kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariei ez zaie aplikatu behar Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariek 2021eko urtarriaren 1etik aurrerako efektuekin izanen duten igoera, 2021eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Lege proiektuko 6. artikuluan ezarritakoa.

Igoera hori, % 0,9koa, eta alde batera utzirik zenbateko guztizko gastua dakarren, iraingarria litzaike gizartearen parte handi bati, zeinak ikusi baitu nola egin duten behera bere diru-sarrerek, langabeziaren gorakadaren, Aldi Baterako Enplegu-erregulazioko espedienteen aplikazioaren eta bere negozioen fakturazioak zipla behera egitearen edo negozio horiek ixtearen ondorioz.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 2. apartatua –"Abalak eta mailleguak ematea"– aldatzeko zuzenketa.

"2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 50.000.000 euro eginen dute".

Zioak: Egungo inguruabarrak eta Nafarroako Gobernuaren ahalmenak kontuan izanik, mailegu eta abal publikoen politika hedatzea lehentasunezko jardunlerroa da gure Foru Komunitateko ekoizpen-ehundura babestu eta horrela etorkizuneko suspertze ekonomikoaren oinarriak sendotzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko ditugu pandemiaren bigarren oldearen ondorio ekonomikoak, zeinek ahuldu egiten baitute aurtengo bigarren hiruhilabeteko konfinamendu luzearengatik jadanik zamatuta zegoen ekoizpen-sistema bat. Ekoizpen-ehundura eta enplegua babesteko gai garen heinean, azkarragoa eta mardulagoa izanen da suspertzea, behin gaingidurik pandemiaren ondo-

riozko osasun-problema.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 3. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– aldatzeko zuzenketa.

"3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste bermeen gehieneko arrisku bizia 46.000.000 eurokoa izanen dela ezartzen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 117.000.000 eurokoa izanen da".

Zioak: Egungo inguruabarrak eta Nafarroako Gobernuaren ahalmenak kontuan izanik, mailegu eta abal publikoen politika hedatzea lehentasunezko jardunlerroa da gure Foru Komunitateko ekoizpen-ehundura babestu eta horrela etorkizuneko suspertze ekonomikoaren oinarriak sendotzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko ditugu pandemiaren bigarren oldearen ondorio ekonomikoak, zeinek ahuldu egiten baitute aurtengo bigarren hiruhilabeteko konfinamendu luzearengatik jadanik zamatuta zegoen ekoizpen-sistema bat. Ekoizpen-ehundura eta enplegua babesteko gai garen heinean, azkarragoa eta mardulagoa izanen da suspertzea, behin gairiditurik pandemiaren ondoriozko osasun-problema.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 4. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– aldatzeko zuzenketa.

"4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak proposatuta, eta gehienez ere 40.000.000 euro eginen dute".

Zioak: Egungo inguruabarrak eta Nafarroako Gobernuaren ahalmenak kontuan izanik, mailegu eta abal publikoen politika hedatzea lehentasunezko jardunlerroa da gure Foru Komunitateko ekoizpen-ehundura babestu eta horrela etorkizuneko suspertze ekonomikoaren oinarriak sendotzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko ditugu pandemiaren bigarren oldearen ondorio ekonomikoak,

zeinek ahuldu egiten baitute aurtengo bigarren hiruhilabeteko konfinamendu luzearengatik jadanik zamatuta zegoen ekoizpen-sistema bat. Ekoizpen-ehundura eta enplegua babesteko gai garen heinean, azkarragoa eta mardulagoa izanen da suspertzea, behin gairiditurik pandemiaren ondoriozko osasun-problema.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 5. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– aldatzeko zuzenketa.

"5 Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82. ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 64.000.000 eurokoa izanen dela ezartzen da. Enpresa-entitate publikoen eta fundazio publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 150.000.000 eurokoa izanen da."

Zioak: Egungo inguruabarrak eta Nafarroako Gobernuaren ahalmenak kontuan izanik, mailegu eta abal publikoen politika hedatzea lehentasunezko jardunlerroa da gure Foru Komunitateko ekoizpen-ehundura babestu eta horrela etorkizuneko suspertze ekonomikoaren oinarriak sendotzeko. Datozen hilabeteetan ikusiko ditugu pandemiaren bigarren oldearen ondorio ekonomikoak, zeinek ahuldu egiten baitute aurtengo bigarren hiruhilabeteko konfinamendu luzearengatik jadanik zamatuta zegoen ekoizpen-sistema bat. Ekoizpen-ehundura eta enplegua babesteko gai garen heinean, azkarragoa eta mardulagoa izanen da suspertzea, behin gairiditurik pandemiaren ondoriozko osasun-problema.

11. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 6. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– kentzeko zuzenketa.

Zioak: 6/2020 Foru Legeak, premiazko neurriak onesten dituenak koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko, bere lehen xedapen gehigarrian ezartzen du aldatu eginen dela Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 14. artikulua (abalak eta maileguak ematea). Emate hori lotuta egonen da onuradun

den pertsona fisiko edo juridikoak konpromisoa hartzeari, jarduerari berriro ekiteko egunetik hasita sei hilabeteko epean enplegua mantentzekoa, behin martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako alarma-egoera amaituta. Xehetasun hori EH Bilduk aurkeztu zuen eta Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politiko guztiek aldeztu zuten, Navarra Sumak izan ezik.

Horren arrazoia da ezen baldintza hori ezarzteak, nahiz eta enpleguari eustearen helburu desiragarriari erantzuten dion, egiazki zaildu egiten duela helburu horren lorpena, zeren eta jarduera-beherakadarengatik enplegua murriztera behartuta legokeen edozein negozio, abal eta mailegu horiek eskuratzeko modurik izan ezean, azkenean enplegu gehiago suntsitzera behartuta gertatuko bailitzateke, are negozioa bera desagertzearen poderioz.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

14. artikulua 6. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– aldatzeko zuzenketa.

"6 Nafarroako Sektore Publikoa osatzen duten entitateek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematea, bai eta artikulua honetan aurreikusitako maileguak ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozkoak, lotuta egonen dira pertsona fisiko edo juridiko onuradunak konpromiso bat hartzeari; hots, enplegua sei hilabeteko epean mantentzearena, mailegu-eskuratzearen egunetik aurrera kontatuta".

Zioak: Hobe da beste modu horretan idatzita uztea, alarma-egoera aspaldi bukatu baitzen.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua 8. apartatua –"Abalak eta maileguak ematea"– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Betetze aldera 10/2014 Foru Legea, maiatzaren 16koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzen duena.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikuluko 3. apartatua (Zor publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aukera hori, Espainiako Gobernuarekin adosturiko erreferentzia-tasatik gorako defizit-gaindikina hartzekoa, lehenik eta behin Hitzarmen Ekonomikoaren bitartez bideratu beharko litzateke, bi administrazioen arteko adostasunerako bide arrunt gisa; izan ere, horrelaxe adostu eta markatu zen aipatu erreferentzia. Bestalde, babes-klausula aktibatuz Egonkortasun Itunaren ohiko eskakizunen gaur egungo eteteak ez du esan nahi egungo egoera gainditu ondoren aurrekontu-egonkortasunaren bidea berreskuratu behar ez denik; beraz, zor-maila berriak aplikatu beharko lirateke haren iraunkortasuna bermatzeko duten helburuetarako. Hori dela eta, erabakitako erreferentziaren ez-betetze oro Parlamentuan jakinarazi beharko litzateke, Parlamentuak dagokion kontrol-funtzioa bete dezan; izan ere, Parlamentuari ezin zaio eginkizun hori kendu, artikuluen egungo idazketak planteatzen duen moduan.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

56. artikulua (Hornidura-kontratuak erakunde autonomo jakin batzuetan) 2. apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela geratuko litzateke idatzita:

"56. artikulua. Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura-kontratuak.

1. Jendeari arreta zuzena ematen dioten erakunde autonomoen menpeko zentroek, produktu freskoak erosi behar badituzte, eskaintza eska diezaiekete hornitzaileei beharrezkotzat jotzen duten maiztasunarekin zerbitzua eta laguntzaren kalitatea bermatzeko, urteko adjudikazioari heldu beharrik gabe.

2. Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak zilegi izanzen du bere menpeko zentroetarako hornigaiak erostea hornitzaileei bi, hiru edo lau hilean behingo eskaintza-galdea eginez, urte osorako adjudikazio bat egite-ra jo behar izan gabe".

Zioak: Aldaketa horrek ez dakar gastua handitzea. Aitzitik, hornitzaileei bi hilean behin, hiru hilean behin edo lau hilean behin eskaintzak eskatuz hornidurak eskuratzea kontratatzeke aukerarekin, prezioak merkatuaren gorabeheretara egokitzen dira epe laburrean, eta horniduren adjudikazioa merkeagoa izaten da administrazioarentzat.

Aurrekoaz gain, gehitu nahi den testua aurreko ekitaldietako aurrekontuen legeetan onartutakoaren berdina da, adinekoen eta desgaituen egoitzazentrotako horniduren kudeaketa errazten baitu.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. artikulua (Nafarroako Ubidearen Eremu ureztagarriaren 1. fasea handitzeko kontratua) aldatzeko zuzenketa.

“58. artikulua. Nafarroako Ubidearen Eremu ureztagarriaren 1. fasea handitzeko kontratua.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzea arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak, Nafarroako Ubideko eremu ureztagarria handitzeko 1. fasea handitzearen interes orokorreko azpiegiturak bere osotasunean eraiki eta ustiatzeko eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko bigarren fasearen proiektua idatzi eta exekutatzeke herri-lanen emakida kontratuan dituenak, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuei eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenei eta haien aldaketei dagozkienak. Emakida-kontratuko obra-proiektuen eta haien aldaketen onespén administratiboa Lurralde Kohesiorako Departamentuak emanen du”.

Zioak: Beharrezkoa da Lurralde Kohesiorako Departamentuari esleitzea lehen fasearen exekuzio osoaren titulartasuna, bai eta Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko bigarren fasearen proiektuaren idazketa eta exekuzioa ere.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hamabosgarren xedapen gehigarria (Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak).

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

Orokortasunez luzatzen dira, 2021erako, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikuluan aurreikusiak.

Erretiroa hartzeko gehieneko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikulua funtzionario guztiei aplikatuko zaie, funtzionarioa atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren zerbitzu aktiboa 2021. urtean zehar luzatzea zerbitzuaren premiengatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko nahitaezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Lege Arau-emaileko A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeke momentua izanen da nahitaezko erretirorako aurreikusita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzat harturik.

Zioak: Medikuek eskasiaz baldintzatu du, zerbitzu-beharren aurrean, Nafarroan fakultatiboek lanbide-jardunean jarraitu ahal izatea, modu justifikatua, kontzeptu hori babesten baitugu. Administrazio Publikoak osasun-sistema publikoari ekarpen handia egiten jarrai diezaioketen medikuen balioa, esperientzia eta ezagutza galtzea saihesteko neurriak ahalbidetu behar ditu, batez ere lanpostu hutsak dituzten profesionalen eskasia-egoera batean, Nafarroako Gobernua ez baita gai egoera hori estaltzeko, eta Nafarroako herritarrei eskubideak eta asistentzia-kalitatea galtzea baitakarte. Baina kontzeptu hori ez dugu burutzekin lotzen. Erretiroa aurreikus daitekeen zerbait da, eta Administrazio Publikoan burutzak betetzen dituzten lider klinikoek beren burutzen trantsizioa

denboraz prestatu beharko lukete. Gainera, laguntza-arloko gainerako medikuek ere buruzagitzalanak egiteko eskubidea dute, beren lanbide-garapenaren barruan. Burutza-lanak ez dira eskasak Administrazioan; falta direnak, berriz, laguntza-arloko medikuak dira, eta ez buruzagitzaren profesio-naltasunez eta lidergoz jarduteko gai ez diren pertsonak. Orain 65 urtetik gorako medikuek buruzagitzalanak egiten jarrai dezaten onartzeak ekitaterik eza eta desberdintasuna dakarkie urte hauetan buruzagitzari uko egin eta beren erreleboa prestatu zutenei, 65 urtetik aurrera, ez buru gisa, laguntza-arloko mediku gisa baizik jardundutenei, eta, gainera, ekitaterik eza eta aukeradesberdintasuna dakarkie beren lanbide-garapenean buruzagitzaren horiek eskuratu ahal dituzten eta eskuratu nahi dituzten beste mediku batzuei.

18. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu Enplegu Planaren funtsak Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarekin lankidetzan, departamentu bakoitzak aipatu Enplegu Planarekin lotuta esleituta dituen eginkizunen arabera”.

Zioak: Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari errazte aldera beren eskumenen arabera Enplegu Planaren garapen-esparruan erabili behar dituzten baliabide ekonomikoen kudeaketa.

19. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Lankidetzaren hitzarmena, Espainiako Gobernuak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin artekoa, Nafarroan abiadura handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatearen ordezkari gisa, 2021ean lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko du Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren bidez, Espainiako

Gobernuaren ordezkari gisa, Nafarroan Abiadura Handiko Trenbide Sarearen garapena bultzatzeko. Hala, Nafarroako Gobernuak lizitatuko ditu sareko obrak, Estatuak, urtero, dagozkion Estatuko Plan Orokorretan Nafarroako Foru Komunitatearen esku jartzen dituen baliabideen bidez. Hitzarmen horrek 2025ean guztiz amaitzeko beharrezkoak diren obrak eta baliabideak egutegian jaso beharko ditu”.

Zioak: Beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak AHTarekin duen benetako konpromisoa izatea, asmo onen adierazpenetik harago joanen dena. Azpiegituran egindako inbertsio bat da, eta traktzio-ahalmen handia du jarduera ekonomikoan, biderkatzailea delako, eta, beraz, enplegua berreskuratzeko eta sortzeko formula bereziki egokia da. Gainera, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunaren etorkizunaren aldeko apustua da, bere ingurune geografiko eta ekonomikoarekin hobeto lotzen baitu, eta hori ezinbestekoa da gure kanpoko sektore erabakigarriak. Era berean, lurraldea egituratzen lagun dezake, konektibitatea hobetuz.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea aldatzea

Aldatzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 29.1 artikulua.

29.1 artikulua

Banaketa funtzionalaren printzipioari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa departamentutan egituratzen da, eta departamentuak 10 izanen dira gehienez. Departamentu bakoitzak bere baitan hartzen ditu jardueraren administrazio boko sektore funtzionalki homogeneo bat edo gehiago, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak”.

Zioak: Oraingoaren moduko uneetan, Gobernuak eredu izan behar du, eta ez du gastatu behar urtean 6 milioi euroko kostua duten makroegituretan. Nafarroaren tamainako erkidego batek ez du 10 departamentu baino gehiago izan behar. Legea aldatzeak segurtasun juridikoa eta Nafarroako

Gobernuaren eta haren Administrazioaren funtzionamendu-arau argiak emanen ditu.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Jar-duera pribatua duten osasun-langileei esklusibotasun-osagarria ordaintzeko muga kentzea.

Nafarroako Gobernuak 2021ean ezabatuko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei esklusibotasun-osagarria ordaintzeko muga, jarduera pribatuan ari direnean, neurri horrek, gaur egun, desberdintasun bat baitakar Nafarroan jarduten duten profesionalentzat, beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, eta mugatu egiten baitu profesionalak erakartzeko eta atxikitzeo aukera. Profesionalen asistentzia-lanaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatzeko beste modu eraginkorrago batzuk badaude”.

Zioak: Azken urteetan, autonomia-erkidego gehienek ezabatu egin dute sistema publikoan lanbidean jarduteaz gain jarduera pribatuan osasun-laguntzako lanean aritzen diren fakultatiboei esklusibotasun-osagarria kentzearen kontzeptua. Kontzeptu zaharritua da jada, Asturiasen eta Nafarroan bakarrik irauten duena. Gaur egun, elementu eta tresna batzuk garatuta daude funtzionario publikoen jarduera eta emaitzak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko; emaitza horiek ez dute zertan okerragoak izan jarduera publikoa eta pribatua egiten duen pertsona batengan eremu publikoan soilik egiten duen beste pertsona batengan baino. Gainera, gaur egun mediku gutxi dagoenez, eta ordainsari-desberdintasun hori Nafarroan dagoenez, eta ez autonomia-erkidego gehienetan, egoera okerragoan gaude profesional onak erakartzeko eta atxikitzeo; izan ere, egoera horren aurrean erkidego mugakideetan lan egitea erabakitzen dute. Gure ustez, Administrazio Publikoaren apustuak emaitzen ebaluazioa eta haren araberako pizgarriak ematea izan behar du, eta ez esklusibotasuna bezalako kontzeptuak.

22. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Buruen eta goi-kargudunen gastua murriztea.

Nafarroako Gobernuak, 2021eko lehenengo bi hilabeteetan, Foru Komunitateko Administrazioako eta haren foru sektore publiko instituzionaleko goi-kargudunen, behin-behineko langileen eta zuzendaritzen nahiz burutzen kopurua murriztuko du, urte horretarako 6 milioi euro aurrezteko lortzeko”.

Zioak: Oraingoaren moduko uneetan, Gobernuak eredu izan behar du, eta ez du gastatu behar urtean 6 milioi euroko kostua duten makroegituretan.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen barneko mediku egoiliarrei (BAME) emanda-ko prestakuntzarengatik ordaina.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen barneko mediku egoiliarrei prestakuntza ematea sustatzeko eta ordaintzeko xedez, eta kontuan harturik ezen, medikuntzako zenbait espezialitateetan dagoen profesionalik ezaren ondorioz, kasu batzuetan bikoiztu egiten dela ekitaldi honetan eta datozen urteetan Nafarroan prestakuntza jasoko duten BAMEen kopurua, ezohiko produktibitatearen modulu bat ezartzen da, urteko gutxieneko zenbateko gordina 1.000 eurokoa izan duena, maiatzeko nominan ordaindu beharrekoa, barneko mediku egoiliarren prestakuntza-urtearen amaierarekin bat etorrita. Tutore batek berak bere ardurapean bi BAME baldin baditu, ordainsaria 1.200 eurokoa izan da; eta hiru edo gehiago baldin baditu, 1.400 eurokoa. Irakaskuntza-modulua kobratzeko eskubidea izanen dute Irakaskuntza Batzordeak tutore izendatu dituen profesionalen, baldin beren ardurapean gutxienez ere BAME bat izan badute. Edozein arrazoi dela-eta tutoretza-aldia maiatza baino lehenago eteten baldin bada, ezarritako kantitatearen parte proportzionala izanen da moduluaren ordainsari. Sendategi bakoitzeko Irakaskuntza Planean zehaztuko dira tutore bakoitzak bere irakaslanari eskaini beharreko orduak, bai eta irakaslan hori zer baldintzatan eginen den eta kasuan kasuko sendalan-salbuestea ere, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuari jarraikiz.

Xedapen honen lehen paragrafoan adierazita-ko helburu berarekin, zilegi izanen da irakaslan hedatzea, kasua bada, osasun-prestakuntza espezializatuko irakaslan egiteko gaitasun-ziurtagiria duten beste osasun-profesional batzueganaino, egoiliar-aldia eginik Medikuntza, Erizaintza, Farmazia, Biologia, Psikologia, Fisika eta Kimikako sendagile, erizain, farmazialari, biologo, fisikari, psikologo eta kimikarien espezialitatean”.

Zioak: Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legean in voce zuzenketa bidez onartu zen, baina ez da sartu Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorren proiektuan. Kontzeptu hori ez da eten behar 2021ean.

24. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen guardiak egun berezietan.

Guardiak egun berezietan egiten dituzten Osasunbideko langileek produktibitate-modulu aldakor bat jasoko dute. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Mahai Sektorialean bertan ordezkatura dauden sindikatuei planteatu ondoren, ezarriko du zeintzuk jo behar diren egun berezitzat, aipatu modulua jasotzearen ondorioetarako”.

Zioak: Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legean in voce zuzenketa bidez onartu zen, baina ez da sartu Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorren proiektuan. Kontzeptu hori ez da eten behar 2021ean.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Osasun Publikoko langileen guardiak egun berezietan.

Guardiak egun berezietan egiten dituzten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Osasun Publikoko langileek produktibitate-modulu aldakor bat jaso ahalko dute, guardiari dagokionaren zenbateko bera izanen duena. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Mahai Sektorialean dauden sindikatuen iritzia eskatuko du, ea zeintzuk jo behar diren egun berezitzat, aipatu modulua jasotzearen ondorioetarako. 2020ko abendua eta 2021eko urtarrila eperako, abenduaren 24a, 25a eta 31 eta urtarrilaren 1a, 5a eta 6a ordainduko dira, kontzeptu honen ordainsaria ekitaldi honetatik aurrera ematearren”.

Zioak: Zuzenketa hori jada 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu zen. Onetsi zen zuzenketaren testu berean ikusten da denboran irauteko asmoa.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“Hamabosgarren bis xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Osasun Publikoko profesionalek barneko mediku egoiliarrei prestakuntza emateagatik ordaina.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Osasun Publikoko profesionalek barneko mediku egoiliarrei prestakuntza ematea sustatzeko eta ordaintzeko xedez, eta kontuan harturik ezen, medikuntzako zenbait espezialitateetan dagoen profesionalik ezaren ondorioz, kasu batzuetan bikoiztu eginen dela ekitaldi honetan eta datozen urteetan Nafarroan prestakuntza jasoko duten BAMEen kopurua, ezohiko produktibitatearen modulu bat ezartzen da, urteko gutxieneko zenbateko gordina 1.000 eurokoa izanen duena, maiatzeko nominan ordaindu beharrekoa, barneko mediku egoiliarren prestakuntza-urtearen amaierarekin bat etorrira.

Tutore batek berak bere ardurapean bi BAME baldin baditu, ordainsaria 1.200 eurokoa izanen da; eta hiru edo gehiago baldin baditu, 1.400 eurokoa. Irakaskuntza-modulua kobratzeko eskubidea izanen dute Irakaskuntza Batzordeak tutore izendatu dituen profesionalek, baldin beren ardurapean gutxienez ere BAME bat izan badute. Edozein arrazoi dela-eta tutoretza-aldia maiatza baino lehenago eteten baldin bada, ezarritako kantitate-

aren parte proportzionala izanen da moduluaren ordainsari. Sendategi bakoitzeko Irakaskuntza Planean zehaztuko dira tutore bakoitzak bere irakaslanari eskaini beharreko orduak, bai eta irakaslari hori zer baldintzatan eginen den eta kasuan kasuko sendalan-salbuestea ere, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuari jarraikiz.

Xedapen honen lehen paragrafoan adierazitako helburu berarekin, zilegi izanen da irakaslan hedatzea, kasua bada, osasun-prestakuntza espezializatuko irakaslan egiteko gaitasun-ziurtargiria duten beste osasun-profesional batzueganaino, egoiliar-aldia eginik Medikuntza, Erizaintza, Farmazia, Biologia, Psikologia, Fisika eta Kimikako espezialitateetan”.

Zioak: Zuzenketa hori jada 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartu zen. Onetsi zen zuzenketaren testu berean ikusten da denboran irauteko asmoa.

27. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bosgarren bis xedapen gehigarria, gehitzeko zuzenketa.

“1 2021. urtean, Nafarroako Toki Erakundeetako Polizietako langileek –Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 1. artikulua 2. apartatuko d), e), f) eta g) letretan definitzen direnek– konpentsazio ekonomiko bat jasoko dute, jaiegunean lan egiten badute. Konpentsazio hori sailkapen-mailaren arabera izanen da, eta Nafarroako Foru Poliziako langileek jasotzen duten zenbateko bera izanen du.

Horretarako, langile horiei azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaie. Foru dekretu horrek arautzen ditu Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauzez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak.

Era berean, ondorio horietarako, jaiegunetako lantzat soilik hartuko da igandean edo langile horientzat urtero onartzen den lan-egutegian jaieguntzat jotako egun batean egindakoa.

2. Jaiegunean lan egiteagatiko diru konpentsazioa % 50 handituko da urtean zehar lan egindako 33. jaiegunetik aurrera.

Apartatu honetan aipatzen diren lan egindako jaiegunak zenbatzeko, lanaldiaren erdia, gutxienez, jaiegunean suertatzen diren egunak soilik hartuko dira kontuan”.

Zioak: Pairatzen dugun pandemiak udal-tzaingoetako langileek ahalik eta denbora gehien ematea eskatzen du, eta horretarako beharrezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsarien behin-behineko erregulamendua onesten duen uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren 43. eta 44. artikuluetan jasotzen den aukera ez izatea aldi honetan aplikatzekoa, interes publikoa dela eta. Aukera horren arabera, langileek igandeetan edo jaiegunetan lan egitearen konpentsazioa aukeratu ahal izanen dute: edo lanaldi eta erdiko konpentsazio-baimena edo diruzenbateko bat.

Igandeetan edo jaiegunetan lan egiteagatiko konpentsazio-araubide hori bera ezartzen da Nafarroako Foru Poliziako langileentzat azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baitira Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauzez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak.

28. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa).

“Azken xedapenetako bosgarrena. Aldaketa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean.

Aldatu egiten da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 33.1. artikulua. Hona testu berria:

1. Arau orokor modura, ordainketa aurreratua eginen da irabazi asmorik gabeko entitateei edota horien federazio, konfederazio edo elkartei gizarte ekintzaren edo osasun arloko proiektu edo programak finantzatzeko ematen zaizkien dirulaguntzetan, baldin eta ez badute baliabide nahikorik diruz lagundutako jardueraren gauzatzea aldi baterako finantzatzeko eta inguruabar hori behar adina frogatzen badute.

Aurrekoa gorabehera, oinarri arautzaileetan ordainketa aurreratua aurreikusten ahal da proiektuak, programak edo jarduerak finantzatzeko dirulaguntzetarako, edo irabazi asmorik gabeko entitateek, federazioek, konfederazioek edo elkar-teeek beren helburuak lortzeko dirulaguntzetarako, baliabide nahikorik ez izatea ziurtatu behar izan gabe, baldin eta ematen den zenbatekoa ez bada 15.000 eurotik gorakoa eta ordainketa aurreratua ez bada emandako dirulaguntzaren % 60 baino handiagoa.”

Zioak: Kulturaren sektorean ekonomiari aurrea hartzeak epe ertain-luzerako aurreikuspena eta programazioa errazten ditu.

29. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapen bat, bosgarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan bosgarrena bis. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzea.

Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeari xedapen iragankor bat gehitzen zaio, eduki honekin:

“Seigarren xedapen iragankorra. 2021. urterako kreditu eragiketen hitzartze-araubide iragankorra.

Salbuespenez, 2021ean, COVID-19aren osasun-krisiaren ondoriozko aparteko inguruabar ekonomikoen ondorioz, urtebetetik gorako zorpetze-eragiketak hitzartu ahal izanzen dira, eta kasu horretan, ez dira aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 62. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuetan aurreikusitako murrizketak.

Salbuespen horren babesean hitzartzen diren eragiketak Estatuak baimendu beharko ditu, berak erabakiko baitu xedapen honetan aurreikusitako inguruabarrak badiren ala ez. Baimen hori mailaka egin ahal izanzen da, tarteen arabera”».

Zioak: Orain arte xedapen bat zegoen Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legean jasotakoaren kopia:

Bosgarren xedapen iragankorra. Kreditu eragiketen hitzartze-araubide iragankorra.

2020a arte, albuespen gisa, zilegi izanzen da urtebetetik gorako eta gehienez hamar urteko kreditu eragiketak hitzartzea, ohiz kanpoko egoera ekonomiko baten ondorioz beharrezkoa izanzen balitz oinarritzko zerbitzu publikoak bermatzeko; kasu horretan, ez dira aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 62. artikuluko bigarren eta hirugarren idatz-zatietan aurreikusitako murrizketak. Salbuespen horren babesean hitzartzen diren eragiketak, betiere, Estatuak baimendu beharko ditu, berak erabakiko baitu xedapen honetan aurreikusitako inguruabarrak badiren ala ez.

Salbuespen hori 2020. urtera arte zegoen aurreikusita, baina 2021. urtean, koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz, beharrezkoa da egoera hori aurreikustea. Salbuespen hori ere aurreikusi da Estatuko Aurrekontuen Legean artikulatu bat txertatuta.

Horrek, behar izanez gero, aukera ematen digu aurrekontuan aurreikusitako inbertsio guztiak baino zenbateko handiagoko maileguak edo zorra hitzartzeko. Orain, xedapen hori indarrean ez dagoenez, ezin dugu hori egin, eta 2021eko aurrekontuan azaleratzen zaigun egoera da, aurreikusitako inbertsioen bolumena 461 milioi euroko aurreikusitako zorpetze-gehikuntza baino txikiagoa baita, 2021erako aurrekontua egiteko erabili den BPGd-aren gaineko % 2,2ko defizitaren erreferentzia-indizea aplikatzearen ondorioz.

2021rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren kontu-sailei aurkezturiko zuzenketak

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
30	2 - Lurralde Kohesiorako Departamentua	220 Herri lan eta azpiegiturak	220001 Proiektuak eta plangintza	NA+
GEHITZEKO	diru-sarreren gehikuntza bat	Zenbatekoa 10	Kontu-saila Estatuaren transferentzia, abiadura handiko tren eraikitzeko	
		Ekon. 7000		

GASTUEN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
31	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+
GEHITZEKO		Zenbatekoa 150.000	Kontu-saila Gune publikoen irisgarritasunerako obrak. Desgaitasuna dutenei laguntzeko plana	
2.	Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
32	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+
GEHITZEKO		Zenbatekoa 25.000	Kontu-saila Informazio-materialak eta baimenatarako materialak sortzea, formatu irisgarrian. Desgaitasuna dutenei laguntzeko plana	
2.	Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
33	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
ALDATZEKO		Zenbatekoa 2.000.000	Orga. Funtzional Kontu-saila 1800 132100 Nafarroako polizia buruzko Foru Legea aplikatzea	
2.	Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			

34	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
ALDATZEKO		Zenbatekoa 550.000 Orga. 02100 6040 Funtzional 132100 Kontu-saila Polizia-ibigailuak		
2.	Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
35	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
ALDATZEKO		Zenbatekoa 300.000 Orga. 02100 6094 Funtzional 132102 Kontu-saila Aplikazio informatikoak		
2.	Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
36	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
